

moodle moot

#mooteu17

MOODLEMOOT EUSKADI 2017  
**MOODLE ERABILTZAILEEN XI. TOPAKETA**  
2017 URRIAK 20, GASTEIZ

LAGUNTZAILEAK



BABESLEA



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

ANTOLATZAILEA



## EGITARAUA

08:30 - 09:00 **Partaideei harrera.**

09:00 - 09:30 **Ongi etorria.**

09:30 - 10:30 **HITZALDI NAGUSIA:**

“On-line unibertsitaterako ikuspuntu metodologikoa: teoriatik praktikara”

- **Abel Camacho Romero (UEU)**
- **Mikel Irukieta Quintian (UPV/EHU)**

10:30 - 11:30 **KOMUNIKAZIOAK**

### A GELA

- 10:30-10:50: **Txabi Perez Zabala (Berritzegune Nagusia):** "Moodle erabilera Hezkuntza Publikoan."
- 10:50-11:10: **Ramon Ovelar Beltran (UPV/EHU):** " Evaluación por competencias con Moodle".
- 11:10-11:30: **Ion Turrillas Sabalza (Biantik):** "Edukiak Moodlera igotzerakoan kontutan hartzeko gako juridikoak".

### B GELA

- 10:30-10:50: **M.Jaione Urreizti Arrizabalaga eta Ainhoa Iribar Ibirriaga (Lizardi Institutua):** "Hizkuntzen Trataera Integratua gelan."
- 10:50-11:10: **Juan Ezeiza Gutierrez (Axular Lizeoa):** "Moodle BHko Filosofia ikasgaiak."
- 11:10-11:30: **Xabier Basogain Olabe (UPV/EHU):** "Pensamiento Computacional en las Aulas de Primaria y Secundaria a través de la Plataforma de Aprendizaje Moodle."

### C GELA

- 10:30-10:50: **Jabi Luengo Errazkin (Herrikide Eskola):** "45n5w, Minecraften arituz talde lana eta autonomia landu."
- 10:50-11:10: **Itziar García Blázquez (MU):** "On-line ebaluazioa."
- 11:10-11:30: **Maialen Igartua Arcelus (UEU):** "On-line irakaskuntza Moodle-n bitartez: irakasle baten lehenengo esperientzia."

Komunikazioak aldi berean emango dira hiru geletan. Gela batetik bestera mugitu ahal izateko, hasiera/amaierak puntual egingo dira.

11:30 - 12:00 **Atsedena dia.**

12:00 - 12:45 **MAHAI-INGURUA:** “On-line irakaslearen ezaugarriak eta garatu beharreko gaitasunak.”

Moderatzailea: **Amaia Arroyo Sagasta (UEU, Ikt on).**

Partaideak: **Rakel Gamito Gomez (UEU)** , **Itziar Kerexeta Brazal (airea-elearning)** eta **Make Irigoien Perurena (irakaslea).**

12:45 - 13:30 **PECHAKUCHAK**

- **Iker Cillero Lejarreta (EJIE):** "KZgunearen esperientzia erabiltzaileen eten digitala hausten Moodle plataforman."
- **Eneko Ripodas (Javyser) eta Josu Uztarroz (Zubiarte Euskaltegia):** "Moodle eta beste programa batzuk konektatzea."
- **Iñigo Zendegi Urzelai (MU):** "Moodle euskaraz komunitatea."
- **Inazio Retegi Saizar (Oiertzo Ikastola):** "Pedagogia 3.0 eta Moodle 3.3: eraberritze aukerak."
- **Lorena Egidazu Ormazabal (irakaslea):** "Haur Hezkuntzako irakasleen etengabeko prestakuntza on-line."

13:30 - 14:30 **Networking bazkaria.**

14:30 - 15:30 **TAILERRAK**

Tailerrak aldi berean emango dira eta partaideek matrikula egiterakoan zein egin nahi duten aukeratu beharko dute (tailer bakoitzean gehienez 50 partaide onartuko dira):

**A GELA**

- **Abel Camacho Romero (UEU) eta Iñaki Arenaza Bengoa (MU):** "Moodle hazten eta itzultzen. Animatzen al zara?"

**B GELA**

- **Iñigo Zendegi Urzelai (MU):** "Learning Analytics."

**C GELA**

- **Manex Etxabe (Ikastolen Elkartea):** "Moodlen itxura."

15:30 - 16:00 **Amaiera saioa.**

- Ondorioak: egunak eman duena.
- Lekukoaren banaketa.

## HITZALDI NAGUSIA

### **On-line unibertsiterako ikuspuntu metodologikoa: teoriatik praktikara.**

Abel Camacho Romero (UEU)  
Mikel Irukieta Quintian (UPV/EHU)

Asmo zaharra da euskal unibertsitatea eta horren alde aritu da Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) jaiotzatik bertatik, zazpi lurraldeentzako goi-mailako hezkuntza egituraren sorkuntza lortu nahian. Gaur egun internetek ikasketa ez-presentziala edo erdi-presentziala burutzeko aukera eskaintzen du eta hori bi estatu eta hiru administrazioetan banatuta dagoen gurea bezalako herri batentzat aukera bikaina da, gaur egun on-line ikaskuntzak beste hainbat unibertsitatetan izandako garrantzia eta arrakasta ikusirik.

On-line unibertsitate horren eraikuntza ondo mamitutako oinarri psikopedagogikoetatik egin beharra dago, ingurune digitalean ere era guztietako ikaskuntza eta ikerketa-prozesuak bultzatuko eta mesedetuko dituen egitasmo baten baitan, eta beti ere etengabeko planifikazioa, ekintza eta ebaluazioa gidari dituela. Jakina, prozesu horretan ezin dira ahaztu, gainera, tresneriak eta konputazioak dakartzan abantailak: partekatzea, zehaztasuna, norik bere ikas-prozesua ikertzea eta datu masiboekin lan egitea, esaterako.

Hitzaldi honetan azken urteotan UEUK eredu pedagogikoa eraikitzeke aurrera eraman duen prozesuaren berri emango dugu, horretarako sortutako lan-tresnak deskribatuko ditugu, bai eta UPV/EHUrekin elkarlanean antolatutako graduondoko batean, "IKTak eta kompetentzia digitalak hezkuntzan, etengabeko formakuntzan eta hizkuntzen irakaskuntzan" (HEZikt) Berezko Tituluan, nola aplikatu den azaldu ere, emaitzak jasoz eta hobetu beharrekoak zehaztuz.

## KOMUNIKAZIOA

### Moodle erabilera Hezkuntza Publikoan.

Txabi Perez Zabala (Berritzegune Nagusia).

Hezkuntza Sailak Moodle plataforma erabiltzeko eskaintza indarrean dago duela urte batzuk. Bada, Hezkuntza Publikoan baliabide horren erabilera aztertu nahi izan dugu lan honetan.

**Ikerketaren esparrua:** derrigorrezko hezkuntza (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ematen den ikastetxeak aztertu ditugu. 446 ikastetxe.

**Moodle instantziak:** ikerketaren muina Sailak eskaintzen duen sisteman instalatuta diren Moodle instantziak aztertzean datza. Derrigorrezko Hezkuntzan 214 instantzia instalatuta daude, aukera duten ikastetxeen % 48a.

**Instantzien erabilera:** lehenengo hurbilketa batean 214 ikastetxe horietatik bakarrik %45ak erabiltzen duela antzematen da. 22 Lehen Hezkuntzan eta 75 DBHn. Modu nabarmenean erabiltzen dutenak, 12 LHn eta 49 DBHn.

**Ikastaroen erabilera:** ikastaro asko ikastetxeko antolakuntza eta irakasleen arteko lanak bideratzeko erabiltzen dira, familientzako inkluso. Ikasleekin erabiltzen direnean edukien bilgune izaten dira, oso gutxi dira ebaluaziorako erabiltzen direnak.

**Ikasteko Ingurune Birtualei buruzko tendentziak:** Inkesta baten bidez Ikasteko Ingurune Birtualei buruzko tendentziak antzeman ditugu: %75a Google aplikazioak erabiltzen edo erabiltzeko asmotan dabilta. %20 inguru erabiltzen du Moodle. Edmodo, Office 365 eta bestelako aplikazioen erabilera %5era ez da ailegaten.

**Hobekuntzarako neurriak:** argi geratu da teknologia horri etekin gutxi ateratzen ari zaiola. Hobetzeko ideia batzuk: instantzien "soportea" hobetzea, Google-Moodle integrazioa sustatzea, prestakuntza bideratzea, ikastetxeen arteko kolaborazio esparruak irekitzea...



## KOMUNIKAZIOA

### Evaluación por competencias con Moodle.

Ramon Ovelar Beltran (UPV/EHU).

#### **Gaitasunen bidezko ebaluazioa Moodle-n.**

Aurkezpen honetan Moodle-ren gaitasunen ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten osagai nagusiak azalduko ditugu (gaitasun-markoak, gaitasunak, eskalak, ikasketa-planen txantiloak eta ikasketa-planak), bai eta funtzionalitate horien eskema orokorra deskribatu ere. Eskema horrek egin beharreko lanaren nondik norako nagusiak zehaztuko ditu eta rol bakoitzak burutu beharreko funtzioen berri emango digu (kudeatzailea, ikasketa-planen ikuskatzailea, irakaslea eta ikaslea).

Gaitasun bidezko ebaluaziorako planteamendu honen alderdi garrantzitsuenetako bat da ikastaroetan gertatzen diren ebaluazio-prozesuen eta ikasle bakoitzaren ikasketa-planaren arteko erlazio osagarria. Alde batetik, ikasle jakin baten ikasketa-planaren gaitasunen betetze-maila ikastaro batean edo gehiagotan daukan aurrerapenarekin lotu ahal da, automatikoki edo geroago berrikusi eta ebaluatuko diren ebidentziak emanez. Beste alde batetik, ikasle bakoitzak gaitasunak balioztatzeke ebidentziak eman ahal izango ditu, eta horien ebaluazioa eskatu ere.

Prozesu honetan "Ikasketa-planen ikuskatzailea" izeneko rol berria dugu, ikasketa-planak sortu eta berrikusi beharko dituen. Horretarako, plataforman edo ikastaro-kategoria jakin batean baimen espezifikoak izan behar ditu.

## KOMUNIKAZIOA

### **Edukiak Moodlera igotzerakoan kontutan hartzeko gako juridikoak.**

Ion Turrillas Sabalza (Biantik).

Zuzenbidea transbertsala da, horregatik hain zuzen ere, Moodle bezalako plataforma bat erabiltzerakoan kontutan hartu beharko ditugu hainbat lege eta betekizun. Besteak beste Jabetza Intelektualarekiko Legea (JIL-LPI), Datuak Babesteko Legedia edo Ohorerako Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Legea eta abar aztertuko dira. Jabetza intelektualaren ikuspegitik batez ere abiatuko da aurkezpena, zehazki Creative Commons lizentziak nola erabili aztertuz, zer esan nahi duten edo zergatik interesgarria izan daiteken bere erabilera. Baita ere, aztertuko dira juridikoki dauden betekizunak, esate baterako hirugarrenen argazkiak, bideoak edo testu aipuak erabiltzen edo egiten direnean Moodle plataformaren baitan.

Azkenik, galdera zein erantzun praktikoak eta erabilgarriak jarriko dira mahai gainean, praktika egokiak edo gomendagarriak aipatuz eta aztertuz.

## KOMUNIKAZIOA

### Hizkuntzen Trataera Integratua gelan.

M.Jaione Urreiziti Arrizabalaga eta Ainhoa Iribar Ibirriaga (Lizardi Institutua).

Errealitate bat da XXI. mendeko euskal gizartea eleaniztuna eta kultura-aniztuna dela baita teknologia berrien gizartea dela ere. Hau dela eta hezkuntza sistemak horri erantzun nahi dio, sistema eleaniztuna eta kultura-aniztuna bultzatuz eta teknologia berrien erabilpena sustatuz. Eskolak ikasleen bizi-esparruen erronka berriei aurre egin behar die eta XXI. mendeko herritar eleaniztunak ez ezik informazioa eta komunikazio teknologietan jantziak ere lortu behar ditu.

Bitartekarion erronka da, beraz, irakatsi eta ikastearen helburuaz gogoeta egitea eta, ondorioz, ikaskuntza/irakaskuntza-metodologia egokitzea.




Lizardi BHLan Hizkuntza Proiektuan jasota dagoen **hizkuntzak modu integratuan irakasteko proiektua** aurrera eraman da. Proiektu honen xedea Bigarren Hezkuntzako curriculumean ageri diren hizkuntzen programazio integratua egitea izan da eta hizkuntza bakoitzaren irteera-profilean definitutako lorpen-maila kontutan eduki da. Horretarako erabili den lan-ildoak **Hizkuntzen Trataera Integratua izan da (HTI)**, egungo gizarte eleanitzean eta kultur aniztasunean bizi diren ikasle eleanitzei gaitasun komunikatiboetan erantzuteko proposamen metodologiko eraginkorra dela uste baita. Gainera, Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoak (H2020) ezarritako lehentasunezko

lan ildo bat da. Inguruan dauden baliabideak aztertu ondoren, **Moodle** plataforma izan da egite hori bideratzeko erabili den euskarria.

**Hizkuntza eta Komunikazioko Gaitasunaren** garapenean dagoen proiektu honetan, ulermena eta idazmenaren irakaskuntza eta ebaluazio bateratuak bermatu dira; eta Bigarren Hezkuntzako hizkuntza arloko curriculum edukiak modu bateratuan (4 hizkuntzatan) eta online landu dira. Horretarako, proiektuen bidezko metodologian oinarritu da: IKTak erabili dira; wequestak sortu dira; materiala eta jarduerak Moodlen jarri eta sortu dira; lan kooperatiboaren bidez, aurrera eraman da eta ebaluatzeko errubrikak erabili dira.



Beraz, HTLan oinarrituz, 4 hizkuntzaren programazio didaktiko integratzaile bat sortu eta aurrera eraman da. 4 gaitasun komunikatibo (irakurmenaren ulermena, entzumenaren ulermena, idatzizko adierazpena eta ahosko adierazpena) heldu zaie; eta Ana Campsek (2003) garatutako proiektuetan oinarrituriko lan metodologia erabili da. Honela, ikasleak ikaskuntza horretako protagonistak bilakatu dira eta irakaslea ezagutza linguistikoak eskuratzeko prozesu horretako euskarria izan da. Ausubelen (1983) hitzetan, ikasketa modu esanguratsua aurrera eraman da, proiektu baten barnean txertatuta.



[Gida turistikoa. Testu genero horren lanketa gelan eta online.](#)



## KOMUNIKAZIOA

### Moodle BHko Filosofia ikasgaian.

Juan Ezeiza Gutierrez (Axular Lizeoa).

2005. urtean hasi nintzen Batxilergoko Filosofiako nire ikasleekin [Moodle plataforma](#) erabiltzen, beti ere eskola presentzialen osagarri gisa, edo “blended learning” anglizismozaleek diotenez.

Hasieratik konturatu nintzen Interneten filosofiarako material multimedia eta ariketa erakargarri gutxi aurki zitekeela. Hortik dator hitzaldiaren izenburua, aldarrikapena izan nahi duena. Egia esan, aurkezpenean azalduko dudana ikasgai guztietan aplika daiteke hein batean edo bestean.

Moodle, bere malgutasuna dela-eta, laguntza handia izan daiteke Batxilergoko Filosofia eta Filosofiaren Historia ikasgaiak dituzten hainbat helburu komun lortzen, hala nola:

- **Kontzeptuen definizioa:** Glosategi ebaluatu eta [jolas \(game\)](#) moduluaren bidez.
- **Iritzi arazoituen trukaketa:** Foro ebaluatuarekin.
- **Kasuen estudioa:** Ikasgaia modulua erabiliz.
- **Kontzeptu-mapak:** [Advanced Mindmap](#) moduluaren bidez.
- **Filosofoak eta beren teoriak lotzen:** [Quizventure](#) moduluarekin.
- **Filosofo eta teoriak beren garaietan kokatzen:** [Timeline Creator](#) tresnaren bidez.
- **Ebaluazio-irizpideak barneratzen:** Tailerra erabiliz.
- **Edukiak barneratzen:** Ohiko galdetegia moduluz gain, [aberatsaren jolasa](#) (millionaire), [ContentGenerator](#) Scorm paketeak edo [karta-jokua \(Flash Card set\)](#) moduluen bidez.
- **Edukiak barneratu ote diren aztertzen:** [Active Quiz](#) moduluarekin.

Posibilitate horiei guztiei begiratu azkarra emango diegu. Moodle eduki-biltegia baino askoz gehiago da. Bere ahalmena neurri handi batean jarduera-modulutuan datza, estandar nahiz ez-estandarretan. Muga bakarra norberaren irudimena da.

## KOMUNIKAZIOA

### **Pensamiento Computacional en las Aulas de Primaria y Secundaria a través de la Plataforma de Aprendizaje Moodle.**

Xabier Basogain Olabe (UPV/EHU).

#### **Pentsamendu konputazioanala Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasgeletan Moodle-ren bidez.**

Instituzio eta administrazio askok [1] Pentsamendu konputazionalaren (PK) ikasketa formala onartu du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan.

IKT [2] eta ikasgela barruko ordenagailuen erabilerari buruzko ikerketek [3] esaten digute irakasle gehienek IKTak txertatzen dituztela ikasteko eta irakasteko prozesuetan, eta ikasleek ikasgelako ordenagailua erabiltzen dutela etxerako lanak egiteko, informazioa bilatzeko eta hainbat ikasgai ikasteko. Irakasleek, zailtasun gisa, denborarik ez izatea eta IKTak erabili ahal izateko ezagutza tekniko eta didaktiko handiagoak eskuratzeko beharra azpimarratzen dute. Ikasleek, berriz, interes eta motibazio handiagoa erakusten dute IKTak ikasgelan erabiltzeko unean.

Gaur egun hezkuntza-teknologiak ikaskuntza mistorako eszenatokiak sortzeko tresnak eta baliabideak eskaintzen dizkigu. "PC-01: Introducción al Pensamiento Computacional" [4] izeneko ikastaroa Moodle plataforma eta Scratch [5] programatzeko ingurunearen gainean dago eraikia. Ikastaroa irakaslearen eta ikasteko plataformaren laguntzarekin egiteko diseinatu da [6,7] (ikusi 1 irudia).

Irakasleak plataformaren baliabide didaktikoak erabilia dinamizatzen du ikastaroa: bideo tutorialak, autotestak, Scratch proiektuak, ikaskideek ebaluatutako atazak eta galdetegiak. Ikasleek ikaskuntza konstruzionista [8], aktiboa eta kolaboratiboa garatzen dute: Scratch proiektuak, proba interaktiboak eta berdinen arteko proiektuen ebaluazioa [9]. Irakasleak eta ikasleek ikastaroaren aurrerapenaren berri dute plataformak eskaintzen dituen segimendurako eta ebaluaziorako tresnei esker.

Ikastaroa Dominikar Errepublika eta Kolonbiako Errepublikako 20 ikastetxe baino gehiagotan eman izan da, herri horietako Hezkuntza Ministerioekin elkarlanean [10,11] (ikusi 2. irudia).

[1] <https://www.gov.uk/government/publications/national-curriculum-in-england-computing-programmes-of-study>

[2] [www.ontsi.red.es/ontsi/sites/ontsi/files/las\\_tic\\_en\\_el\\_aula.pdf](http://www.ontsi.red.es/ontsi/sites/ontsi/files/las_tic_en_el_aula.pdf)

[3] <http://dx.doi.org/10.1787/9789264239555-en>

[4] <https://doi.org/10.1109/SIIE.2016.7751816>

[5] [https://www.researchgate.net/publication/220426817\\_Scratch\\_Programming\\_for\\_All](https://www.researchgate.net/publication/220426817_Scratch_Programming_for_All)

[6] <https://www.edx.org/sites/default/files/upload/ed-tech-paper.pdf>

[7] [www.ijssh.org/vol6/755-SH1002.pdf](http://www.ijssh.org/vol6/755-SH1002.pdf)

[8] <http://www.papert.org/articles/SituatingConstructionism.html>








[9] <http://digitalcommons.kennesaw.edu/k12blendedonline/2>

[10] <https://doi.org/10.1016/j.chb.2017.04.058>

[11] <http://recursos.portaleducoas.org/publicaciones/pensamiento-computacional-en-las-escuelas-de-colombia-colaboraci-n-internacional-de>



### Sesión 3

-  Video: Sonido - Parte 1 - El Perro
-  Video: Sonido - Parte 2 - El Caballo
-  Video: Sonido - Parte 3 - La Campana
-  Práctica: Sonido
-  Auto Test 03
-  TEC 03
-  Test 03
-  Explora y Descubre

1. irudia: Pentsamendu konputazionala ikastaroa (PC-01) Moodle plataforman.



2. irudia: Irakaslea eta ikasleak ikasgelan PC-01 ikastaroa egiten Moodle plataformaren bidez.

## KOMUNIKAZIOA

### **45n5w, Minecraften arituz talde lana eta autonomia landu.**

Jabi Luengo Errazkin (Herrikide Eskola).

45n5w, batetik taldean negoziatu eta erabakiak hartzeko eta bestetik autonomia lantzeko proiektua da. Googlen "45n5w" sartuz gero Bizkaiko Golkoan erdian dagoen kokapena erakusten digu. Bertan irila berri bat agertu da bapatean. Zer egin genezake bertan? Gobernu baten antzera antolatuko gara eta Minecraft-en aldez aurretik sortutako irila bakarra duen munduan gizarte berri bat eraikiko dugu.

## KOMUNIKAZIOA

### On-line ebaluazioa.

Itziar García Blázquez (MU).

Aurkezpen honetan, online bidezko ikaste-irakaste prozesuetan ematen diren ebaluazioen inguruan burututako ikerketa eta hezkuntza praktiken literatura azterketa baten emaitzak azalduko dira. Lehenengo eta behin, gaur egun unibertsitate edo erakunde ezberdinetan aurrera eramaten diren hezkuntza praktika arrakastatsuak aurkeztuko dira. Bertan, gaur egun *online* bidezko ebaluazioan dauden joerak azalduko dira. Nazioarte eta Europa mailan erakunde ezberdinak aurrera eramaten diharduten proiektuak ezagutzera emango dira. Ondoren, ebaluazio formatu alternatiboak aurkeztuko dira, hau da, formatu tradizionaletik aldenduz, gaur egungo hezkuntza testuinguruari erantzuten dioten ebaluazio formatuak. Horietako batzuk aipatzearren, eportfolioak, errubrikak edota intsigniak adibidez, azaldu eta erakunde ezberdinetan nola erabiltzen ari diren aurkeztuko da aurkezpenean.

## KOMUNIKAZIOA

### On-line irakaskuntza Moodle-n bitartez: irakasle baten lehenengo esperientzia.

Maialen Igartua Arcelus (UEU).

Maialen Igartua naiz. Ikasketaz, ikus-entzunezko komunikazioan gradua eta komunikazio korporatiboan masterra ditut. Lanbidez, kazetari zein enpresa bateko komunikazio teknikari gisa lan egin izan dut orain arte. Aurten, berriz, esperientzia berri bat probatzeko aukera izan dut: lehenengo aldiz, irakasle lanetan jardun naiz.

UEU Udako Euskal Unibertsitateak eskaini zidan irakasle izateko aukera. Hilabeteko ikastaro bat eman diet 24 irakasleri, *Blogekin lehenengo pausoak hizkuntza geletan* izenekoa. Ikastaro horretan, blog bat nola sortu eta elikatu irakatsi diet, eta hizkuntzak irakasteko erabil ditzaketen edukiez hausnartu dugu.

Ikastaroa online eman dut, Moodle plataformaren bitartez. Hortaz, ikasleek online plataforma bat erabiltzen ikasi dute (bloga), beste online plataforma bat erabiliz (Moodle). Garai berrien erakusle bikaina, ezta?

Lehen ere erabilia nuen Moodle plataforma, baina ikasle gisa, nik ere egina baitut ikastaro bat haren bidez. Oraingoan, ordea, hesiaz beste aldera pasatzea tokatu zait.

MoodleMoot jardunaldian egingo dudana komunikazioan, ikastaro hau ematean bizi izandako esperientzia kontatuko dut. Nolako esperientzia izan da ikastaro bat online ematea? Zein abantaila eskaini dizkit, eta zein zailtasun? Galdera horiei erantzuten saiatuko naiz, besteak beste.

## MAHAI-INGURUA

### **On-line irakaslearen ezaugarriak eta garatu beharreko gaitasunak.**

Moderatzailea: Amaia Arroyo Sagasta (UEU, IKT on)

Partaideak: RakeI Gamito Gomez (UEU), Itziar Kerexeta Brazal (airea-elearning) eta Make Irigoien Perurena (irakaslea).

## PECHAKUCHA

### **KZgunearen esperientzia erabiltzaileen eten digitala hausten Moodle plataforman.**

Iker Cillero Lejarreta (EJIE).

16 urte bete ditu KZguneak gizartea eta teknologia berriak elkartzeko lanean erreferente izateko helburu sendoarekin. Hala, 2001ean martxan ipini zenetik, KZguneak apustu garbia egin du: sortzen ari diren teknologietan arreta ipintzea eta herritarrei haietara gerturatzen laguntzea.

KZguneak atsedenik gabe lan egin du azken hamasei urte hauetan ahalik eta herritar multzorik zabaleneren beharrianak asetzeko eta eten digitalari aurre egiteko; hala, formakuntza eskaini du erabiltzaileek teknologia berriei buruz egin dizkiguten eskariekin lotutako eremu guztietan.

KZguneak 257 zentro ditu Euskal Erkidego Autonomoko udaletan zehar sakabanaturik:



Pecha-kucha honetan KZguneak formakuntzan izandako birmoldaketa eta nola Moodle oinarri bezala eduki dugun erakutsi nahi dizuegu. Horretarako KZgunearen bizitzaren 16 urteetan zehar bidai bat proposatzen dizuegu:



MoodleMoot Euskadi 2017  
#mooteu17  
Gasteiz, 2017-10-20



## PECHAKUCHA

### **Moodle eta beste programa batzuk konektatzea.**

Eneko Ripodas (Javyser)  
Josu Uztarroz (Zubiarte Euskaltegia).

Moodle-k beste tresna digitalekin batera lan egiteko aukera ematen du. Zubiarte euskaltegian aurre-matrikulak Moodle-ra zuzenean konektatzen den programa baten bidez egiten dituzte eta horrela, ikasleei izapide hori egitea errazten zaie (etxetik egin dezakete) eta Zubiarteko administrazioko langileentzat ere errazago da ikasleak gero Moodle-ko ikastaroetan matrikulatzea.

## PECHAKUCHA

### **Moodle euskaraz komunitatea.**

Iñigo Zendegi Urzelai (MU).

Moodle Euskaraz izenekoa mundu mailako Moodle komunitatearen euskarazko gunea da, eta aurkezpen honen helburuak egiten dugun lana azaldu eta komunitatean parte hartu nahi dutenak animatzea dira.

Komunitate honen helburu nagusia euskaldun guztiek Moodle euskaraz erabiltzeko aukera izatea da, eta horretarako plataforma euskaraz izateko lan egiten dugu. Moodle-ko euskarazko bertsioaren azken urteetako eboluzioa eta gaur egungo egoera azalduko dugu, eta norbaitek komunitatearen parte hartu nahi badu nola egin dezakeen azalduko dugu.

Horretaz gain [moodle.org](http://moodle.org) webgunean badago ere Moodle euskaraz atala eta hau da komunitatearen bilgunea. Bertan edonork dauka parte hartzeko aukera, baita Moodle inguruan dituen zalantzak/galderak botatzeko eta laguntzeko prest izango gaitu.

Badago komunitatearen hirugarren hanka bat ere, eta hau [docs.moodle.org](http://docs.moodle.org) dokumentazio gunearen euskarazko bertsioa da. Gaur egun gune honen egoera zein den ere azalduko dugu.

## PECHAKUCHA

### Pedagogia 3.0 eta Moodle 3.: eraberritze aukerak.

Inazio Retegi (Oiertzo Ikastola).

Pedagogia 3.0 kontzeptuaren jatorria azaltzea lehenengo lana.

Oinarriak: egileak, ekarpenak...

Hurbiltze autodinamikasortzailea (autogeneranta)

Ped1.0, Ped2.0 eta Ped3.0: bakoitzaren ezaugarriak eta gelako dinamika desberdinetan duten presentzia (egiten duten EKARPENA) azaletik aztertuko ditugu. Dosifikazioa.

Ped3.0-ren helburu nagusia ikasle eta irakasleen ARRAKASTA (bakoitzaren eta guztion xedeen osatzea): gelako %95ren PROGRESIOA.

**Emaitzen neurketa.** Baliabideak:

Probe 3.0, Stéphane [Côté](#);

Moodle 3.3 (Inazioren erronka).

**Kolaboraziorako “baratzak”:**

(3.0) <https://iretegi.moodlecloud.com/course/view.php?id=4>

(Petxakutxako aurkezpena, zereginak eta “jardueren tutorialak” eskura. Sarrera doan (norberak egin lezake).

(2.0) [@IFB\\_berria](#)

(6.2) [@inazioretegi](#)

## PECHAKUCHA

### Haur Hezkuntzako irakasleen etengabeko prestakuntza on-line.

Lorena Egidazu Ormazabal (irakaslea).

2014an UEUri esker bi ikastaro ematea egokitu zitzaizkidan. PrestGarako bi ikastaro ziren eta biak online. Burura etorri zitzaidan lehen gauza, ikasle moduan, online ikastaro bat egin nuenekoa izan zen.

Ikastaro hartan, materiala, Dropbox hodeira igotzen zuten. Ikasleak deskargatu, irakurri eta bere ordenagailuan pilatu zezakeen. Arazo tekniko edo galderaren bat bazeukan, emailaz galdetu behar zuen eta erantzuna emailaz jaso.

Egia esan, ni gustura geratu nintzen, orduan neukan helburua apunteak lortzea zelako, baina aurrerago ikasi nuen bezala, hori ez da nahikoa. Ikasleen arteko interakzioak, ikasprozesua asko aberasten du eta egindako ikastaroan hori da gehien faltan bota nuena.

Beraz, UEUko lankideekin elkartu nintzen lehen egunean, aurreko esperientzia buruan nuela, beraiek Moodle deitzen zen plataforma bat aurkeztu zidaten. Momentu horretan oso urduri jarri nintzen, nahiko traketsa naizelako teknologia berrien munduan eta, horren ondorioz, bi erronka handi sortzen zitzaizkidalako. Lehen Moodlea kontrolatzea eta bestea ikastaroko material erakargarri eta erraza sortzea ikastaroan eraginkorra izan zedin.

Lehen erronka berehala atzean utzi ahal izan nuen, Moodle ondo gidatutako lanabes oso intuitiboa delako, beraz, hasierako beldurrak oso arin desagertu ziren. Bigarren erronka, bideoen laguntzaz egitea pentsatu nuen, baina ez nekien gure lagun Moodlekin hori posible izango zen edo ez. Baietza jaso nuenean, Moodlekin ia danetik egin genezakeelako, argi neukan nola diseinatuko genuen ikastaroa, gai bakoitza nire azalpeneko bideo batekin hasiko zen eta gero adibide bideoak jarriko genituen.

Eman ditudan ikastaro guztien helburuetako bat, partekatzea izan da beti, norberak sortu dituen ekintza eta materialak elkarbanatzea. Partekatze hori era askotara egiten dugu, baina esan genezake, tresna garrantzitsuena foroak direla.



2017ko urriaren 4tik azaroaren 8ra

Irakaslea: [Lorena Egidazu Ormazabal](#)

#### Komunikazio tresnak

- Berrien foroa
- Ikasgela foroa
- Kontu-kontari

Ikasgela foroa izaten da gehien erabiltzen duguna. Hor dokumentuak, irudiak, bideoak, partekatzen ditugu, eta hausnarketa lekua da. Ikasleei aurpegia jartzen diet, eta hori niretzat oso garrantzitsua da, aurrez aurre ditudala ematen du eta harremana naturaltzen duela uste dut.

Beste hausnarketa batzuk zuzenean niri bidaltzen dizkidate, bakarkakoak dira. Ildo honetatik jarraituz hurreko ikastaroan egunkari deitzen den atal bat zabaldu genuen. Esan beharra daukat, ikasleek oso ondo hartu dutela hausnarketa modu hau eta nik ere asko ikasi dut euren ikuspuntuak ezagutzuz.

Ikastaroetako azken puntua, proiektua izan da. Proiektua, bideo bat egitea da, ikastaroan zehar ikusi dituzten bideoetako bat egin behar dute, jarduera edo material bat azalduz. Bideo horrek Youtubeko UEUko kanalera igotzen ditugu eta ikasle bakoitzari bere ikaskideek egindako bideoa pare bat egokitzen zaizkio, bideoa hauek ikusi eta euren inguruko bere iritzia eman dezan. Ikastaroa bukatzeko, azken aurrez aurrekoan, proiektu guztiak komentatzen ditugu.

Laburbilduz, Moodlea erabiltzea oso intuitiboa da. Ez da teknologietan aditua izan beharrik, beldur barik erabili daiteke, pauso guztiak azalpen batekin doazelako. Gainera, zerbait nahi gabe aldatzen badugu, konfirmazio galdera agertzen denez beti, berriz pentsatzeko aukera ematen digu.

## TAILERRA

### **Moodle hazten eta itzultzen. Animatzen al zara?**

Abel Camacho Romero (UEU)  
Iñaki Arenaza (MU).

Tailer honen helburu nagusia da Moodle-ren garapenari lagundu ahal dioten bi alderdiri erreparatzea. Alde batetik, plugin berria sortu edo existitzen den funtzionalitate jakin bat hobetu nahi izanez gero, garapen hori onartua izateko prozesua azalduko dugu, Moodle Code checker, Javascript-en linter delakoa edo proba bateratuen jolasen erabilera bezalako tresnen berri emanez. Ezin diogu pluginen sortze-prozesuari erreparatu, prozesu horrek duen sakontasunagatik, eta beraz, ikuspuntu orokor batetik helduko diogu gaiari.

Beste alde batetik, Moodle-ren pakete estandarren euskal itzulpenaren kudeaketa deskribatuko dugu, bai eta plugin ezestandarren itzulpena nolatan egin daitekeen ere (besteren garapenak izan nahiz norberarenak). Horrez gain, AMOS-en hobekuntzarako aukerez ere hitz egingo dugu (glosarioak, itzulpen-memoria...).



## TAILERRA

### Learning Analytics.

Iñigo Zendegei Urzelai (MU).

Tailerra 3 ataletan antolatu dugu:

#### **Learning Analytics kontzeptua argitzen**

Learning Analytics kontzeptua (Ikaste-prozesuaren Analisia) oso bogan dagoen kontzeptua da, eta ikaste-prozesuaren baitan pilatzen diren datuak batu, aztertu eta bertatik informazio esanguratsua atera ondoren informazio hori ikasleen ikaste-prozesuan nolabaiteko inpaktua izateko aplikatzean datza.

Informazioaren analisia egiteko moduaren arabera LA-k 4 motatan sailkatzen dira: edukiaren analisia, diskurtsoaren analisia, sare sozialen analisia eta izaeraren analisia.

Informazio hori zertarako erabiltzen denaren arabera LA-k 4 motatan sailkatzen dira: informazioa bistaratzea, esku-hartzea, pertsonalizazioa eta egokitzapena, eta iragarpena. Horietako bakoitzak konplexutasun-maila ezberdinak ditu, baita bestelako inplikazioak ere (baita etikoak ere).

#### **Zer egin dezaket gaur bertan kontzeptu hauek Moodle-n aplikatzen hasteko?**

Ohiko Moodle batekin badauzkagu horrelako kontzeptuak aplikatzen hasteko hainbat erreminta, eta badaude ere hainbat gehigarri datuen analisisian sakondu nahi badugu.

Horietaz gain, Mondragon Unibertsitatean aurrera eraman dugun MyStudent/MyCourse proiektu bat aurkeztuko dugu, LA kontzeptuaz egin daitezkeen aplikazio desberdin bat erakusteko.

#### **Imaginatuz dezagun etorkizuna, nondik joan daiteke joera hau?**

Joera honetan lehen pausoak besterik ez dira eman, eta etorkizunean asko sakonduko dela ematen du.

Esaterako MoodleHQ-k une honetan anbizio handiko Inspire proiektuan dihardute lanean LA erreminta berriak Moodle-ra ekartzeko, eta beste joera orokor batzuk ere azalduko ditugu.

Bukatzeko, denon artean joera honen aukera berriak imajinatzen saiatuko gara, kontuan hartuta ere erreminta hauen erabilerak ekar ditzakeen arazo eta dilemak.

## TAILERRA

### Moodle itxura.

Manex Etxabe (Ikastolen Elkarte).

Tailerraren asmoa Moodle-en Gunearen kudeaketako **Itxura** atalari errepaso bat egitea izango da. Ikastolen Elkartean zenbait Moodle plataforma nola itxuraldatu ditugun erakutsiko dugu.

Atal horretan dauden azpi-atal guztiak ikusiko ditugu, eskaintzen dituen aukeren berri izateko. Errepaso hau egin ondoren **Itxurak** atalean zentratuko gara. Lehenengo gaineratik bada ere, hutsetik itxura berri bat nola sortu daitekeen azalduko dugu. Ondoren, Ikastolen Elkartean egin dugun moduan, **itxuraren ezarpen aurreratuak** eta **HTML osagarria** erabiliz, nahiko modu errazean itxura nola aldatu daitekeen ikusiko dugu.

The screenshot shows the Moodle course interface for 'ikasgune'. The header is red with the course name 'ikasgune' and the subject 'Euskara eta literatura'. The user is logged in as 'Kudeatzailea Erabiltzailea'. The main content area features a lesson titled 'ZER, NOLA ETA ZERTARAKO?' with a poem by Mikel Mendizabal and a cartoon illustration of people interacting with technology. Below the poem is a section titled '1 Kokatze-jarduera' with a video player and a photo of a group of people.

**ikasgune** Euskara eta literatura Kudeatzailea Erabiltzailea

Elkarrekin bizi(hi)tza

**ZER, NOLA ETA ZERTARAKO?**

Norbere izaera  
norbere jakintza  
besteek trukatzeko  
asmotan gabiltza,  
osotasun baterantz  
lan eta ekintza  
euskalkien aukera  
izanik anitza  
elkarrekin bizi(hi)tza  
bizi eta mintza. (Bis)

**(Mikel Mendizabal)**

EKI Proiektua - Bertsoa (SOUNDCLOUD)

Gizakiok, komunikatzeko dugun gaitasunaren bidez, etengabe jarduten dugu informazioa elkarren artean trukatzeko: batek galdetu eta besteak erantzun; nik azaldu eta zuk entzun; zuek kontatu eta guk osatu. Informazioa trukatzeko harremanetarako eta elkar ezagutzeko gizakion oinarritzko jarduerak da.

**1 Kokatze-jarduera**

Ikasleen arteko elkartrukeek aukera paregabea eskaintzen dute herrialde bateko eta beste adin bertsuko gazteak harremanetan jartzeko, elkar ezagutzeko eta elkarbizitza lantzeko. Izan ere, halako ekintzek gazteen hartu-emanak sustatu egiten dituzte, ez bakarrik trukaketan, baita trukearen prestatze eta antolatze-lanetan ere.

Hortaz, zeroatik ez bideratu gazte euskaldunen arteko elkar eza gutza